

EUSKAL JOLAS, PILLOTA JOKUA

(Aurtengo indar-ueurtzeetan saria irabazia.)

PILLOTAREN jatorria noiztik datorren, ez det billatu nere eskuetara irichi diran idazti guziak lardaztu arren; baña guziok degu ba-koitzak bere iritziak elikatzeko eskubidea, ta nereak esaten dit aspaldi-koa dala. Aspaldi onek, muga esitu gabe daukan ezkerro, aztartu nai duna, ta ibilgure dana, dijoala irudiaren egoetan jarraituaz baztarra jo arte. Nik ezin det; nere almenak, nere kemenak aulak, mirriñak dira.

Alaz ere; or, emen bildutako egiai ta gogoan dauzkaten ikuzgaiez, eraztu nai nuke idazticho au; ez noski eredu bezela geldi dedin asmoz, bada orretarako adimendagoak badira; baizik, gure ele maiteari al dedan egokiena, nere zaletasuna agertu nai diotelako.

Pillota gaiez, berezko diran itz asko, euskeraz izen garbirik itztegian ez det billatu, ta sumatzalle geldoa naizelako, itzulaztu gabe uzten ditut batzuk.

*
* *

Joku edo jolas onen goitaltzea emeretzi-garren gizaldi asieratik dator. Asantza ta Perkain euskal pantzetar jokalariai garai artan buru dira. Arrayoz'ko Simon baztandarra ta bere seme Batišta ere, oyen garraikoak ziran.

Batišta onek bere jayoterria utzi ta lekuz aldatu zan Oyarzuna. Emen, oi ez bezelako piilotari bezela berealaše agertu ta egin zan pillota joku guzien chapelaren jabe (1).

Garai artako piilotari onena izan arren, seta suminkarrekoa; enda gaiztoko gizaki charra; gogamen gabea, chit griñatia; ta mende zeuka-

(1) Chapelaren jabe egin dala esan oi da, garaile edo *konpeon* gelditaen danean.

ten zaletasun dollarrak bultza ezkerro, edozer egiteko ajolakabetua. Orre-gatik bizi bezelako bukaera izan zuan.

Bein, Donostiko ibiltoki, *plaza*, ikuslez bete betea zegola, ta ugal-dun, *alkatea*, lendakari zala, luzeran jokatu zuan pillota *partidu*, geyenak uste zuten ez irabazi bear zuana. Batista maltzurra zala jakin arren, diru asko bere alde zeaztu zan. Baña onek, bere ajolagabekeri ta zabarkeria guzien aurrean ta guziaz irrika azalduaz, leikide, *kontrarioai*, utzi zien azken aurrerañoko *tantora* iristea, berak bat bakarrik egin gabe. Geldituko zan *zapatero*, joku bat gabe, ikusle artetik, ondo jantzitako gizon bat, eskuan su-iskillcho, *pistola* bat zuaala atera ez bazan, Batišta'ri zinki esanaz:

—¡Batišta!: *kintze* au galtzen badek, emenche bertan illko aut.

Itz oek bildur gógorra sartu zien ta une artatik asi zan, zekien bezela jokatzan, ta laister erabateko *kintzeak* egiñaz, leikideak berdindu zituan.

Alkateak, au ikusiaz agindu zuan joku ura geldi-arazteko bukatu gabe ta *plazatik* ikusle guziak irten zitezela.

Batišta izutua, egun artan oso goiz echeratu zan bere izeneko beste bat lagun zula.

Plazan irten zitzayon gizon ark, azkarra jarraitu zion, eta gaueko amaiketan azaldu zan, Batišta zegon ostatuan, ta onetzaz galdetu zuan. Nolabait jakin zuan zein gelatan zegon lo. Ala bearrez bi Batišta'k oi batean lo zeuden. Gelara, illun zegon gelara, sortu zan gizon au, ta bere eskuak lenbizi billatu zuana esnatu-ta, galdetu zion:

—¿Batišta al zera?

—Bai, Batišta naiz—erantzun zion onek.

Berealaše entzun zan danbateko bat; iñork ezagutzeko beta gabe, laisterka echetik irten zan gizon ori, ta echekoak pillotariaren gelara sartu ziranean, ikusi zuten, au, zindo, baña bere laguna, illa. Bere erioa buruan zuan gajoak.

Gizon ark Arrayozko Batišta ill nai zuan, baña bi lagunak izen batekoak ziralako errugabea ill zuan. Gero nora joan zan gizon ura, iñork ez daki.

Batišta zer maltzurra, ta zer pillotari trebea zan, azaldu zuan *partidu* orrek, jokalaria ori Pantzira igezegin bearra ekarri zion. Andik Abanara joan zan, ta gau batez, zaldi gañean echera zetorrela, norbait irten zitzayon bidera, ta beti-betiko illotzik utzi zuan.

Edestiyak ez du agertzen gizon ori nor zan.

Gertakari au bakarra da pillotarien edestia orbantzen duan gertakari erruduna.

*
* *

Garai artako *palari* onenetzat Isidro Indart ezagutzen zan *Rioja*'ko onenari mando zamak lotzeko ziran adaki batekin luzerako jokuan, jokua irabazi zion.

Bere seme Joŕe Ramon eskuzko *sakalaririk* kementsuena bezela jotzen zan.

Luzerako biko yayua Gamio apaiza ta Aranaz'ko Biŕente ziran, biyak oso zarrez illak.

Gipuzkoa'n ospetsu ziran ere Legorreta'ko apaiza, Ernani'ko D. Pe-liŕ, Irazusta, Toloŕa ta Onrubi apaiza.

Naparro'ko Baztan ibarran Manuel Aŕko, Bertach, Plaza ta Aranaz-ko lau anayak, beste guzien gain azaltzen ziran.

XIX-garren gizaldiaren erdi inguruan Iribas'tar Juan Migel *errebotaria*, Kalatras, Lizurume ta Andoain'go idazketari edo *kartero* Joŕe Ramon izandu ziran jokalaria yauak.

Gero, luzera, trinkete ta *errebotean* jokalaria asko azaldu ziran. Oye-tan, Manuel Azketa, *Melchor*, zan *errebotari* onena, Manuel Ancha *sakalaria* ta Iradi Ernani'ko eŕkerra, beso indartsuenekoa. Bere anai Mocha, Arroŕko zeritzayon. Pagoaga ta Lesaka'ko Iribarren apaiza ere ospatsuk izan ziran, bañan guzien gain jarri zan Manuel Lekuona, *Urchalle* zeritzana.

Oyek guziak moteltzen asi ziranean, aize zurrunbillo batek bezela guziak zapaldu, ta Urchallekin joku zarreko azken sariak bildu zituan Azpeiti'ko Chikito azaldu zan.

*
* *

Mauleon'ko *errotariak* luzatu zuan orduraño motz zan *guantea*, ta orrek sortu zuan pillotan jokatzeko beste epe edo era berria. Bañan Eibar'ko Chikiak, berpiztu zuan, naiko atzenduta zegon *pala* jokua.

Naiz eskuz, *palaz*, ŕarez eta *guantez*, Chiki ori, bere jatorriz Indalezio Sarasketa zana, pillotari guzien artean, aipatuena izandu da.

Markiña'ko Laba apaiza, tantai sendoa bezelako gizon galanta, egiz zentoia, beatz tartean pillota lertzeko laiñ indar zeukana, garaile zegon, Eibar'ko Chikia asi zanean. Baña onek amasei urteko mutill biguña zala Bilbao'n jokaturako *partiduan* esku-jokuko chapela Markiña'ko apaizari kendu zion.

—¿Apaiz jaun bati, ainbeste urtean jabe zan chapel ori kentzea, nola ausartu aiz? ¡A zer mutiko lotsagabea!

Chapel ori ezezik laister beste bat ere bereganatu zuan, Eibar'ko Chikiak Durango'n, Bisimoduri palaz kenduaz. Eta oraindik geyago. *Guantez* ere, bai *guante* mochakin ta bai luzeakin, ta *sestoz* ziplatu zitu-tuan chapel guziak, Euskal-erri guzian arrigarri geldituaz.

Gero Amerikan, esan beurik ez dago, Paisandu ta beste guziak zapaldu zituala.

Berriz Euskal-errira ichuli zanerako mazkaldu zan, ta berriz sayatu arren, Elizegi ta beste gazteak menpetu zuten Eibar'ko Chiki dundi ura.

JUAN MÚGICA LASQUÍBAR

(Jarraituko da)

